

EUROVISION TXAPELKETA



Zurriola Ikastola

Geologia eta ingurumen zientziak- 3. ebaluazioa

2. Batxilergoa

Egileak: Luna Arizmendi eta Maddi Ibarondo

AURKIBIDEA

1. Sarrera 3. orria
2. Txapelketaren historia 3. orria
3. Funtzionamendua eta arauak4. orria
4. Epaimahiak eta irabazleak5. orria


SARRERA


Eurovision jaialdia nazioarteko musika jaialdirik handiena eta ikusiena da, baita telebistako luzeena ere. 62 urtetan zehar hainbat artista pasa dira Europako jaialdi honetatik, hala nola Céline Dion, Olivia Newton-John, Julio Iglesias edo ABBA bezalako taldeak. Era berean, entzuten jarraitzen dugun abesti arrakastatsuak lehiaketa honetatik atera dira, hala nola Volare, Euphoria edo Rise like a phoenix. Baina, zer da, ordea, Eurovision jaialdia?

Bakoitzak bere ikuspegitik definitzen du jaialdi hau. Esate baterako, The Telegraph hedabideek “kontinenteko kultur ekitaldirik zoragarriena bezala definitzen dute. The Guardian bezalako beste hedabide batek adierazi dutenez, “lehiaketa zirku bat da, urteetan pop arineko abestiak eta balada edulkoratuak nagusi izan dituen lehiaketa.”

TXAPELKETAREN HISTORIA

Kronologia honetan jaialdi honen historia azalduko dizuegu:





FUNTZIONAMENDUA ETA ARAUAK

1956an lehen aldiz ospatu zenetik, gaur egun arte, Eurovision txapelketaren arauak denboran zehar aldatzen joan dira, garai berrietara moldatuz eta ikuslegoaren entretenimendua sustatuz.

Lehenik eta behin, jakin beharra dago Eurovision txapelketa ez dela beti horrela deitu izan. Izan ere, 1956an lehen aldiz ospatu zenean, Grand Prix Eurovision de la Chanson Européene izena eman zitzaion, baina hori oso luzea zenez, urte batzuk geroago Eurovision izendatzea erabaki zen.



Aurkezten diren abestiei dagokienez, lehen urteetan herrialde bakoitzak bidalitako artistek bi abesti desberdin abestu behar zituzten, eta horiek jatorrizko herrialdeetako hizkuntza ofizial batean abestu behar ziren nahi eta nahi ez. Gaur egun ordea, herrialde bakoitzak abesti bakarra bidaltzen du txapelketara eta hori edozein hizkuntzan abesteko askatasuna dute. Alegia, lehen edizioetan, esate baterako, Suediak ez zuen ingelesezko abestirik aurkezteko eskubiderik, ingelesa ez baita ofiziala Suedian, baina arau hori aldatu denez, gaur egun ez litzateke inolako arazorik egongo horrekin.

Era berean, 1956ko lehen edizioan erabaki zen artista bakarlariak bakarrik aurkeztu zitezkeela, eta herrialdeen ordezkariak txapelketa nazional baten bidez aukeratu zirela. Aurreko adibideetan bezala, arau horiek ere aldatu egin dira. Izan ere, gaur egun bakarlariak, duetoak edo taldeak aurkeztu daitezke txapelketara, eta horiek ez dira zertan txapelketa bidez aukeratu behar. Hots, herrialde bakoitzeko telebista nazionalak ere barne-prozesu baten bidez ordezkariak aukeratzeko eskubidea dute.

Hona hemen Eurovision txapelketak, lehen aldiz 1956an ospatu zenetik gaur egun arte izan dituen aldaketak irudikatzen dituen taula:

	LEHEN EDIZIOA - 1956	GAUR EGUN - 2024
TXAPELKETAREN IZENA	Grand Prix Eurovision de la Chanson Européenne	Eurovision
ABESTI KOPURUA	Herrialde bakoitzak bi abesti abestu behar ditu	Herrialde bakoitzak abesti bakarra abestu behar du
ABESTIEN HIZKUNTZA	Herrialdeko hizkuntza ofizial batean abestu behar da	Edozein hizkuntzatan abestu daiteke
ORDEZKARIAK	Bakarlariak soilik aurkeztu daitezke	Bakarlariak, duoak edo taldeak aurkeztu daitezke
ORDEZKARIEN HAUTAKETA	Ordezkariek txapelketa nazional baten bidez aukeratu dira	Ordezkariek txapelketa nazional baten bidez edo telebista nazionalaren barne-prozesu baten bidez aukeratu dira

EPAIMAHAIK ETA IRABAZLEAK

1956an lehen aldiz antolatu zenetik, Eurovision txapelketa ahalik eta irabazle justuena aukeratu ahalegindu da, eta horretarako urteetan zehar hainbat metodo eta arau jarraitu ditu.

Lehen edizioetatik, irabazlea erabakitzen zuen epaimahai bat egon da, baina epaimahi horren osaketa eta boterea aldatzen joan da denboran zehar.



1956an, herrialde bakoitzak bi kidek osatutako epaimahai bat hautatzen zuen, eta epaile horiek gehien gustatutako herrialdeari bozkatu ziezaketen, baita beraien herrialdeari ere.

Horrek suposatu zezaken arazoa ikusita, hurrengo urtean hainbat aldaketa sartu ziren indarrean. Lehenik eta behin, erabaki zen herrialde bakoitzak 10 pertsonak osatutako epaimahia izan beharko zuela, eta epaimahai horrek gehien gustatutako emanaldia aukeratu zezaken, beraien herrialdearena izan ezik. Gainera, txapelketaren izaera informala agerian utziz, erabaki zen epaileak ezingo zirela musikagileak edo musika munduko figurak izan. Normalean, epaimahaiaren artean, beti bazegoen jatorrizko herrialdeko figura ezagunen bat. Esate baterako, Marisol (1965), José Coronado (1988) eta Antonio Banderasek (1989) Espainiako epaimahaiean parte hartu izan zuten.

1962an, arauak berriro ere aldatu egin ziren. Ordura arte, epaimahaiko kideek abesti hoberena aukeratzen zuten, baina 1962tik aurrera hiru abesti hoberenak aukeratu behar zituzten. Alegia, abesti hoberenari 3 puntu ematen zitzaizkion, 2 puntu bigarrenari eta bakarra hirugarren hoberenari. Horrek, hala ere, arazo bat eragin zuen: berdinketa. Horregatik, berdinketa gertatuko balitz artistek berriro abestu beharko zutela eta epaileek berriro bozkatu beharko zutela erabaki zen.

1975an, gaur egungo prozedura ezarri zen. Herrialde bakoitzak 5 epaimahaikide aukeratu beharko ditu, eta horiek 12 boto ematen dizkiote abesti hoberenari, 10 bigarrenari eta 8 hirugarren hoberenari.

Berez, finalera heldu aurretik, herrialdeek finalerdiak igaro behar dituzte eta horietan puntuazio altuenak lortzen dituztenek soilik parte hartu dezakete finaletan, baina arau hori ez da berdina herrialde guztientzako. Izan ere, Frantzia, Alemania, Espainia, Erresuma Batua eta Italiak, txapelketa antolatzen duen erakundeari (Europako Irrati-ielebista Batasuna), gehien ordaintzen dieten herrialdeak direnez zuzenean finalera igarotzeko eskubidea dute. Herrialde horiek *Big Five* bezala ezagutzen dira, eta arau horri esker, urtero parte hartzen dute maiatzan antolatzen den final handian.




Gaur egun, epaimahia mantentzen den arren, erabakiaren %50a ikusleen esku dago. Izan ere, haien boto eta epaimahiaren botoen bidez aukeratzen da irabazlea.

Aurtengo edizioan, 37 herrialdek parte hartuko dute, baita Australiak ere, herrialde gonbidatu gisa. Aurtengo irabazlea erabakitzeko dagoen arren, badira historian zehar besteek baina arrakasta gehiago izan duten herrialdeak. Esate baterako, Suediak eta Irlandak inorrek

baino edizio gehiago irabazi dituzte (7). Frantzia, Luxenburgoko, Herbehereak eta Erresuma Batuak, berriz, bost aldiz irabazi dute txapelketa, eta Israelek berriz 4 urtetan. Danimarka, Ukraina, Italia eta Norvegiari dagokionez, herrialde bakoitza 3 ediziotan atera da txapelkun eta Espainia, Alemania, Suitza eta Austria 2tan.

Ugari dira behin bakarrik irabazi duten herrialdeak, esate baterako Estonia, Belgika, Grezia eta Portugal, baina are gehiago dira inoiz irabazi ez dutenak, adibidez Polonia, Montenegro, San Marino, Islandia eta Errumania.

Hona hemen urteetan zehar Eurovisioneko edizio gehien irabazi dituzten herrialdeak zeintzuk diren irudikatzen duen diagrama:



BIBLIOGRAFIA

References

Facultad de Filosofía y Letras *El Festival de Eurovisión: Más allá de la canción.* (n.d.). UVaDOC Principal. Retrieved April 14, 2024, from https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/22312/TFG_F_2016_193.pdf?sequence=1&isAllowed=y